



KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA
SAILA

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren
zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y
POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Dirección de Actividad Física y Deporte

EUSKO JAURLARITZAKO JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZUZENDARITZAREN OHARRA

Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariaren 2020ko martxoaren 20ko ebazpen bidez Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-federazioen hauteskunde-prozesuak eten egin ziren, baita hasitako prozesuen epeak ere.

Zuzendariaren ebazpenean ondorengoia esaten zen literalki: "*osasun-alarmaren ondorioz dugun salbuespen-egoeraren ondorioz, eten egiten dira Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-federazioen gaur egungo hauteskunde-prozesuak, eta, ondorioz, eten egiten dira hasitako prozeduren epeak, baita hasi ez dituztenentzat hauteskunde-prozesuak egiteko epeak ere, alarma-egoera amaitu arte*".

Gaur ordea, EHAAan argitaratu da 14/2020 DEKRETUA, ekainaren 18koa, Lehendakariarena, zeinaren bidez deklaritzen baita deseskaladarako planaren 3. fasea gainditu dela. Horrenbestez, indargabetuta geratuko dira alarma-egoeraren esparruan hartutako neurriak, eta 2020ko ekainaren 19ko 00:00etan hasiko da «normaltasun berria».

Hori dela eta, alarma-egoeran hartutako neurriak indargabetuta geratu direnez, Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariaren 2020ko martxoaren 20ko ebazpenean xedatutakoa ere indarririk gabe gelditu da eta Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-federazioen hauteskunde-prozesuak berrekingo dira, baita hasitako prozesuen epeak ere.

Hori horrela, gogorarazi behar da, Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-federazioen hauteskunde-prozesuak egikaritzeko indarrean dagoen araudia, kirol-federazio bakoitzaren hauteskunde-erregelamenduaz gain, ondorengoia dela: AGINDUA, 2012ko otsailaren 19koa, Kulturako sailburuarena, euskal kirol federazioen eta lurralde federazioen hauteskunde-erregelamenduak prestatzeko eta hauteskundeak egiteko irizpideak finkatzen dituena.

Horren harira, argitu nahi dugu, Espainiako federazioen hauteskunde-prozesuetan ez bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-federazioen hauteskunde-prozesuetan abuztua ez dela ballodun izango hauteskunde ondorioetarako (Aginduaren 4.1.artikulua).

Beraz, gaurtik aurrera, Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-federazioen hauteskunde-prozesuak berrekingo dira eta hasitako prozesuen epeak ere martxan jarriko dira, prozesu horiek kirol-federazio bakoitzaren arautegiaren eta aipatutako Aginduaren menpe egingo direlarik.

NOTA DE LA DIRECCIÓN DE ACTIVIDAD FÍSICA Y DEPORTE DEL GOBIERNO VASCO

Por Resolución de 20 de marzo de 2020, del Director de Actividad Física y Deporte del Gobierno Vasco, se suspendieron los procesos electorales de las federaciones deportivas vascas, así como los plazos de los procesos iniciados.

En la resolución del Director se decía literalmente que "*como consecuencia de la situación de excepcionalidad en la que nos encontramos como consecuencia de la alarma sanitaria, se suspenden los actuales procesos electorales de las federaciones deportivas del País Vasco, con la consiguiente interrupción de los plazos de los procedimientos iniciados, así como de la celebración de procesos electorales para quienes no los hayan iniciado, hasta que finalice el estado de alarma*".

Sin embargo, hoy se ha publicado en el BOPV el DECRETO 14/2020, de 18 de junio, del Lehendakari, por el que se declara la superación de la fase 3 del Plan para la desescalada, se dejan sin efecto las medidas adoptadas en el marco del estado de alarma y se establece la entrada en la nueva normalidad a partir de las 00:00 horas del día 19 de junio de 2020.

Por ello, al quedar derogadas las medidas adoptadas en situación de alarma, queda también sin efecto lo dispuesto en la Resolución de 20 de marzo de 2020, del Director de Actividad Física y Deporte del Gobierno Vasco, y se reanudan los procesos electorales de las federaciones deportivas de Euskadi, así como los plazos de los procesos iniciados.

En este sentido, cabe recordar que la normativa vigente para la ejecución de los procesos electorales de las federaciones deportivas vascas, además del reglamento electoral de cada federación deportiva, es la ORDEN de 19 de febrero de 2012, de la Consejera de Cultura, por la que se establecen los criterios para la elaboración de los reglamentos electorales y la celebración de elecciones de las federaciones deportivas vascas y territoriales.

En este sentido, queremos aclarar que, a diferencia de los procesos electorales de las federaciones españolas, en los procesos electorales de las federaciones deportivas de Euskadi el mes de agosto no se considerará hábil a efectos electorales (artículo 4.1 de la Orden).

Por tanto, a partir de hoy se reanudarán los procesos electorales de las federaciones deportivas de Euskadi y se pondrán en marcha los plazos de los procesos iniciados, que se llevarán a cabo bajo la normativa de cada federación deportiva y la citada Orden.

Jon Redondo Lertxundi
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendaria

